

Pil



bi ean

1997ko Ekaina

6. Zenbakia



A red logo consisting of the letters 'K' and '3' in a stylized, bold font. The 'K' is on the left and the '3' is on the right, both rendered in a vibrant red color.

LOTSAGARRIXA DA

Baserrixak gora, baserrixak bera, eta azkenian zer? Ba, bertarako bidiak konpontzeko be borondaterik ez. Lotxagarrixa da San Andreserako bidia dauan egoeran egotia. Kanpotik etortzen dan jentia konturatzen da, baita herritik ixotzen dabena be, baina bene-benetan konturatu eta kaltiak sufritzen ditxuan jentia, auzoko baserrixetan (Bertan) bizi dana. Egunero - egunero etxeruzkuan eta kaleruzkuan autuari tratu txarra emotiaz aparte, bidia dauan egoeran ikustiak pena emoten dotxenak. Batxeren bat edo beste balitz bakarrik, baina...ez dira batxe batzuk bakarrik, ez litzake gezurra esatia, ez dauala batxia besterik. Ezin leike onartu, hain bide garrantzitsua izanda (bai kotxian eta bai bizikletan jende askok erabiltzen baitau) halako egoeran egotia.

Denok dakigu nola dauan eta ez dao; gehixao esan biharrik.

Diputaziñuan zeregina ei da, ta horregaitxik eskatu nahi dotxet (nahiz ta eskatzia be ez litzaken biharrezkua izan bihar) lehenbailehen konpontzeko eta bihar dan moduan ganoraz jartzeko. Bada ordua ta!!

AURKIBIDEA

<i>Gutunak eta iritziak.....</i>	<i>1</i>
<i>Gizartea.....</i>	<i>4</i>
<i>Gaurkotasuna.....</i>	<i>7</i>
<i>Kale Inkesta.....</i>	<i>10</i>
<i>Kirola.....</i>	<i>11</i>
<i>Kronologia.....</i>	<i>13</i>
<i>Sufondoaren Epelean.....</i>	<i>15</i>
<i>Kultura.....</i>	<i>18</i>
<i>Agenda.....</i>	<i>23</i>
<i>Txikitxoko.....</i>	<i>24</i>
<i>Sukaldaritza.....</i>	<i>25</i>
<i>Hormatzulotik Begira.....</i>	<i>26</i>
<i>Horoskopoa eta denborapasak.....</i>	<i>27</i>
<i>Lehiaketa.....</i>	<i>29</i>

Argitaratzailea: Pil Pilean Kultur Elkarte. 27 Posta Kutxatila. **Erredakzio kontseilua:** **Gizarte saila:** Eduardo Pombar, Maite Etxeberria. **Gaurkotasun saila:** Aitor Gabilondo, Maite Elizburu. **Kale Inkesta:** Amaia Agirre, Oihana Garitano, Ainhoa Artolazabal, Leticia Alvarez, Maitane Maiztegi. **Kirol saila:** Mikel Gartzia, Iñaki Alberdi. **Kultur saila:** Gurutze Ariznabarreta, Ubane Madera, Loiola Madera, Sabin Mendizabal, Egoitz Unamuno, Jose Ramon. **Horoskopoa:** Oskar Elizburu. **Denborapasak:** Erredakzioa. **Lehiaketa:** Gurutze Ariznabarreta. **Sufondoaren Epelean:** Gorka Prieto. **Hormatzulotik begira:** Maite Etxeberria. **Kronologia:** Egoitz eta Ubane. **Sukaldaritza saila:** Oihana Garitano. **Bitxikeriak:** Ubane. **Txikitxoko:** Plaentxi Herri Ikastola. **Agenda:** Elene Alberdi eta Maite Elizburu. **Argazki arloa:** Oihana Garitano. **Diseinua eta maketazioa:** Gorka Prieto. **Hizkuntza arduraduna:** Soraluzeko AEK. **Publizitatea:** Erredakzioa. **Tirada:** 1000 ale. **Inprimategia:** K3 (Bergara). **Copyright-a:** Pil Pilean Kultur Elkarte.

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Laguntzailea:
SORALUZeko UDALA

EUSKAL PRESOAK EUSKAL HERRIRA

Azaroaren 16an Euskal Presoak Euskal Herrira plataforma sortu zen Soraluzen.

Bertan 46 pertsonak sinatu zuten euskal presoek elkartasuna adieraziz eta jasaten ari diren egoera larria salatzeke, halanola Euskal Herrira ekar ditzaten eta dagozkien oinarrizko giza-eskubideak errespetatu diezazkieten eskatzeko.

Kontuan hartu behar da hiru soraluzetarren egoera ez-legezkoa dela:

- Joxean Arluziagak kondenaren hiru laurdenak beteak dituenek kalean egon behar zela orain urte t'erdi.

- Pedro Jose Mallorcan eta Lurdes Txurruka Carabanchelen espetxeraturik daudela.

Ez-legetasun hauei aurre egiteko plataformako kideak hainbat ekintza burutzen ari dira Udaletxe mailan eta baita kale mailan ere.

Hau dena aurrera eramateko, Soraluzeko herriari dei egiten diogu guztion artean Euskal Presoak Euskal Herrira lema gauzatzen parte har dezan.

Denok batera legea bete artean.

Euskal Presoak Euskal Herrira Soraluzeko Taldea

PAUSOAK EMATEKO ORDUA DA

LABek urteak daramatza eguneroko egoera salatzen, orain irtenbideak proposatzeko ordua da. Langabezia eta esklusioaren aurkako pausoak ematea premiazkoa da. LAB sindikatoak, egoera ezin larriago

honekin lehenbailehen amaitzeko konpromezuarekin eguneroko lan eta borroka etengabeari ematen dio hasiera.

Egungo egoera gordin honek baditu arduradun eta errudunak, baina horiek ez dute arazoak konpontzerik nahi. Orain, proposamen zehatz eta egingarria izango dute mahai gainean eta neurri hauekin aurrera egiteko prest dauden ala ez erakutsi beharko dute.

ENPLEGU POLITIKA BATERAKO PROPOSAMENA

- Ordu extrak desagertarazi.
- Lan indarren trafikanteak eta lanpostuen prekarizazioaren errudun nagusiak diren ETTak desagertarazi.
- Jubilazioak 60 urterekin.
- Lan jardunaldia astean ordubetez murriztea.
- Emakumea lan merkatuan erabat sartzea.
- Langabeziatiko laguntzaren unibertsalizazioa.
- Nafarroan zein Baskongadetan enplegu eta gizarte asegurantzarako erakunde propioak gauzatzea.
- Lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparrua gauzatzeko legegintza ahalmen osoa izatea Iruñea eta Gasteizko gobernuak.
- Enpresa bakoitzean behin-behineko kontratazio erregimenean langilego osoaren % 10etik behera izatea derrigorrez.

ORAIN

Zenbat egun horma barruan, zenbat bizitza isladatuta? Zergatik? Zeinek daki sistema honen jokaera zikina? Demokrazia?

Soberan daude hitzak, jokoa beti berdina. Boterearen makinaria, diruaren esklabutza. Kontsumoaren denbora, dena salgai, denok erosle. Progresoaren izenean, era edo bide kaltegarri batean sartu nahi gaituzte, irrifar batekin, yankien erara noski, ilusio maltzurak saltzen dizkigute, plastikozko neska hutsak, ordenadorez egindako ametsak, kotxe zoragarriak, etxe faltsuak, dirudunen etxeak. Eskaparateko paisaia, kanporuntz dizdira, barruan ezer ez.

Gizakiak betidanik egin dituen galderak: Nondik gatoz? Nora goaz?

Honela segitzekotan, ez dakit zenbat gehiago iraungo duen jaioterriko ama-lur honek. Etsai asko datorkio mesprezatzan, bortxatzen, lapurtzeko asmoarekin. Denbora gutxitan, diru kopuru haundiena. Horixe litzateke XXI. mendean sartzeko gaudenean, "homo estudipo ke no sapiens", daukan bizitzeko legea. Gizon gaixoen lege txorrea. Naturaren heriotza, lehen Jainkoa eta lege zaharra baziren, orain boterea, makina eta dirua; "God save the pyramidal sistem"

Lurra negar egiten duenean, ia denok barre egiten dugu eta puta zikin bat balitz bezala erabiltzen dugu. Ez zaigu aurpegia gorritzen, sentimenduak ere galtzen goaz, makinaren makinazioa, gizakia makina bihurtzen aurrera doa; bidean gaude, progresoaren bide ilunean. Noiz arte eutsiko diote sistema honen dikeek?. Hamar urte? Ehun urte? Honela segitzekotan, ziurtasun osoz esaten dizut gizakia bere heriotzaren hazia landatzen dagoela. Nahitanahiez, bere bide bakarra Naturarekiko harremanetan sakontzea eta jokaera naturala sortaraztea litzateke nire ustez bidea.

EA TALDEAREN OHARRA

Soraluzeko EA taldeak Pil-Pilean aldizkari berriaren sorrera agurtu nahi dugu bizi oparoa opatuz eusko alkartasunaren aldetik beti saiatu izan gara euskara hitzez eta egitez defenditzen, gure herrian euskaldunon berbia entzun dein.

Legealdiaren hasieratik eskubide osoz hasi ginen lanean Hirukoaren akordioaren ondorio bezala.

Gaur egun akordio hori Alkate Jaunak apurtu du. EA-k Gobernu Batzordean egon denetik-1995ko ekainetik 1997ko apirila bitartean- lan egiteko seriotasuna, zorroztasuna eta ilusioa erabili izan du. Aldaketak eraman nahi izan ditu Udalera, estilo berri bat, berari eman zaizkion lan - alorretan.

Eusko Alakartasuna-k herritar guztien zerbitzura jardun izan du, inolako bazterketarik egin gabe, are gehiago, edozein ekimen edo proiekturen aurrean entzuten jakin izan du.

Hau da gure lan egiteko era. Eta seguru egon, Gobernu Batzordean egon, edo kanpoan, soraluzetar guztien bizitzaren kalitatea defendatzen jarraituko dugula orain arte bezala.

ELA, BERRIZ ERE, SORALUZEN

Joan den maiatzaren 30etik aurrera, Gila zubian ELAk duen egoitza, astelehen eta asteazken arratsaldetan zabalduko dela jakinarazten dizuegu. Edozein lan-kontsulta, errenta aitorten edo zalantzaren bat argitu nahi izanez gero, bertara gerturatzea besterik ez duzue izango.



Ditxosozko azterketak



Egun hauetan batzuk hor ibiliko zarete buru-belarri liburu artean. Beste batzuk, ordea, atzean utziko zenituzten azterketak eta ez zarete gutxi izango uda partean ikasten arituko zaretenok iraileko azterketak gainditu ahal izateko. Hemen ondoikasteko hamaika trikimailuen berri izango duzue.

Adituek diotenez, badira ondo ikasteko jarraitu beharreko pausuak. Baina gai honetan

jakintsuenak ikasleak direnez, Soralezeko ikasleen artean azterketatxo bat - nota jarri barik, jakina - egin dugu ikasteko orduan erabiltzen duten teknika edo estrategien berri izateko.

Beti zaratarik gabe edo irratia piztu gabe ikasi behar dela aholkatzen dute adituek. Hemengo ikasleek, ordea, bereizketa egiten dute gaien arabera: matematika, fisika, marrazketa, e.a. ikasi behar badute musikak ez die trabarik egiten; beste gaietan isiltasuna behar izaten dute.

Eskemak egitea eta liburuetakoa ideia nagusiak azpimarratzea beharrezkoa da, bai adituentzat bai Soralezeko ikasleentzat.

"Utz ezazu mahaia garbi eta txukun. Aldizkariak, egunkariak, kaseteak ezkuta itzazu" aholkuarekin bat ez datozenak aurkitu ditugu. Batzuk beti trastez inguratuta egoten dira: aldizkariak, janaria, argazkiak, erlojuak, fetitxeak, kasetak. Erlojua, adibidez, behar-beharrezkoa da bere buruari erronka eginez ikasten duenarentzat, hau da, ordutik ordura gai gehiago ikasten saiatzen denarentzat ("ordu honetan 2 gai ikasi ditut, ea hurrengo ordubeteen 3 edo 4 ikasteko gai naizen").

Ondo ikasteko laugarren puntua haxe izango litzateke: "eseri aurretik prestatu dena ondo: koadernoak, liburua, e.a. Ez jaiki txitean-pitean zerbait bilatzeko, lagunari deitzeko, zerbait jateko... Utzi hori atsedenerako. Konzentratu!"

INDUSTRIAS **GOL** S.A.

Tornileria-Estanpazioa
eta Extrusioa hotzean

Tfno:(943)752100

Telex: 38665GOL-E 20590 SORALUZE

EDURTZA
SORALUZE
KAFETEGIA

Badugu gure artean puntu hau betetzen dutenek eta baita eserita minutu batzuk besterik ematen ez dituztenak ere. Azken hauentzat zutik ikastea da metodorik onena, gelan bueltak emanez, irakurritakoa ozenki errepikatuz ikasten baitute. Atsedena hartzea komenigarria denez, telebista ikusi, jan edo edan, komunera joan, marrazkiak egin, dutxatu, kirola egiten e.a.etan ematen dugu denbora; badago atsedena aprobetxatzen duena aldizkariko zerbait irakurtzeko, gero jaiki eta gaia ozenki azaltzen du, bigarren atsedenaldiaren ostean bi

gai azaldu eta horrela dena bukatu arte.

"Anima zaitetz eta gogoz ikasi. Baztertu ideia txarrak: Zertarako ikasi, gero langabezian egoteko... Askok ikasita gauza txar horiek gerta daitezke baina ikasi gabe seguru gertatuko direla. Eta hauxe esaten diogu geure buruari Plaentxin: "Hau gaintitzen badut, opor onak pasatuko ditut". "Lasai, beti egoten naiz horrela eta hau ere pasatuko da."

Bukatzeke, azken aholkua azalduko dizuegu: "Ez ikasi dena azterketaren bezperan. Ikasi egunero egunero

poliki eta plan zehatzaz." Hau betetzen dutenak banaka batzuk besterik ez ditugu aurkitu. Gehienek azkenengo egunetarako lagatzen dute ikasi beharrekoa. Badaude gai batzuk ikasi gabe joaten direnak eta azterketa aurreko orduetan ikaskideei galdetuz, ikasi gabekoa jasotzen dutenak ere.

Ez dakigu aholku hauek baliagarri izango dituzuen. Beharbada norbaitentzat lagungarri bai. Hori bai, azterketetan ZORTE ON denoi!

Bitxikeria

Astua gora eta astua beheara

Iraolabeitxiko aitxitxa eta amama telebisiñua ikusten zeozen astua kanpua lotuta zeuan bitxartian. Baina ordubixetan edo telefonotik esan zotzen astua kaminutik bera korrika zozala.

Kotxia hartu eta bera bajatu ziranerako, astua kartereran zeuan okelia partitzen zeban kamioi baten aurrian. Hanguak hartu eta poligonora sartu eban.



Orduan amama eta aitxitxa hasi ziren astuari txilioka:

-"Zikiñ hori, txarri hori, ikusiko zu zelako palizia hartuko zun!!"

Karnizeruak:

-"Ai koitxau!! Honek Bergarara joatia nahi zeban jaixetara."

Orduan Inurrieta munizipala agertu zan eta esan zotzen berak lagunduko zotzela astua eruatzen, baina astua ez zeban joaterik nahi. Han zotian amama kotxe barruan astua oratzen, baina astua joaterik nahi ez eta kotxian aurrian ipini zeh.

Orduan Inurrietak munizipalen kotxia argi guztiekin ipini eta atzetik eskoltatu zitxuan amama. aitxitxa eta astua.

Kristina Laskurainek kontatua, 1997ko martxoa.



LAUDIN
PROIEKTU-ETA DISEINU INDUSTRIALA

LAUDIN, S. A. L.

Industrialdea, z/g
138 Postakutxa
Tf.: (943) 75 21 50
Faxa.: (943) 75 21 18
SORALUZE

UDALTZAINAK: HERRIA ZAINTZEN DUTENAK

Herrian esaten da askotan Udaltzainek ez dutela lanik egiten edo ez dutela ezer konpontzen, baina egia da behar ditugunean beraiengana jotzen dugula gure autoa ezin dugulako atera garajetik parean beste bat dagoelako, edo Mendaroko autobusen ordutegia jakin nahi dugunean. Beraien zereginak zeintzuk diren jakiteko, udaltzain batekin egin dugu berba.

Pil Pilean: Zenbat udaltzain zarete eta zein da zuen ordutegia?

Udaltz.: Goizez edo arratsaldez aritzen gara eta bost udaltzain gara.

P: Eta zein da zuen betebeharra?

U: Kezkak azaldu jendeari, herrian gaizki ikusten duguna, publikoa zein partikularra; adibidez argiak, etxeen fatxadak jausteko arriskutan dauden ala ez, trafikoa, urgentzietara azaldu, istripuak, txoferren arteko istiluak konpondu edo behintzat saiatu baretzen,.... e.a.

P: Zure ustez eta zuen arloari dagokionez, zein da arazo nagusia Soraluzen?

U: Jendeak izan ohi duen "komodidadea"; nahiz eta guri lana eman, azkenean herriaren kalterako izaten da. Adibidez trafikoaren gaia aztertuz gero, nik ez dut uste Soraluzen aparkalekurik ez dagoenik, gertatzen da jendea oso komodoa dela. Beste arazo bat txakurren ingurukoa da: jende asko kexatzen da hauen kakaz. Eta azkenik bizikletak dauzkagu: oso arrakatsua dira ez dituztelako semaforoak errespetatzen.

P: Badaukazue zeldarik hemen?

U: Bai, badaukagu. Eta erabiltzen dira? Noizbait erabili izan dira.



P: Zuk uste duzu udaltzain gehiago behar direla herri honetan?

U: Bai, nire ustez bat gehiago behar da.

P: Zer pentsatzen duzu zure lanari buruz?

U: Alde batetik, gu hemen sartu ginenean, txapela eman ziguten eta kitto, hortik aurrera hor konpon. Nire ustez, prestakuntza behar beharrezkoa da, gauza asko jakin behar dira eta ez guk egiten dugun bezala, borondatez. Gure arazorik haundiena da udaletxeak baztertu egiten gaituela, baztertzeko besterik ez dira gutaz gogoratzen. Uste dugu gehiago ahal dugula eta gai

garela funtzio gehiago betetzeko. Ze funtzio gehiago? Ba, batzuetan jendea etortzen zaigu eta ezin dugu behar den moduan atenditu bitartekoak ez ditugulako. Bai bitartekoak, bai prestakuntza oso defizitarioa da.

P: Borrokaren bat dagoenean zer egiten duzue?

U: Ba, sortzen denean, sartzen gara borroka baretzeko. Inoiz "kobratu" izan dugu, baina gutxitan, jendearekin oso harreman onak ditugulako.

P: Zer lan gustatzen zaizu gehien?


U: Jendeari poza lortzen laguntzen diozunean.

MEREZI OTE....?

Ohi bezala, herri erdiko edozein tabernatara sartu naiz nire lagun edo ezagunen baten bila. Solasaldirako inor aurkitzen ez nuenez, kafesne eta aldizkari baten aurrean bizitza honetako gogoetak etorri zaizkit burura.

Kalean zehar ikastolatik irten berri diren bi neskatila igaro dira liburuz josita berriketa batean.

Nik ez dut nahi alferrik izateko, ikaslea



Baliteke orain musika klaseak jaso behar izatea edo batek daki, ingelesezkoa, gimnasia, klase partikularrak... Umetatik konpromezu ugari jasan

arazten zaie onuragarri izango delakoan.

Taberna atetik bikote gazte bat ageri da, pareko mahaian ezarri zaizkit zurito banarekin. Begibistakoa zait elkarrekin dauden une honek, egunak dakarkien betebeharrak guztietatik aldentzen dituela. Tabernetara jotzen dute leku hoberik ezean, hala ere honek mugapen batzuk ekar liezazkieke, jende aurrean lizunkeria gisa agertzen bait dira beraien maitasunaren adierazleak. Merezi ote pribatizazio honek?

Horman itsatsita dagoen ohar baten arabera, intsumisioaren aldeko hitzaldia emango da hurrengo egunetan herriko kultur elkarteetan. Gizabanakoen ahotan pil-pilean dagoen gai zahar honek, buru hausteak besterik ez dakartzan arazo bat da. Urte bat galdu behar izanak bizitzan erabakior izan daitezkeen hainbat ate itxiaz ditzake. Denboraren poderioz legitimitatea lortu duen gazteen presio, indar, eta udalen eskuhartzea dela medio.

Merezi ote intsumisioari buruzko onarpen sozialak, gizaki eskubideen murriztea eman behar baldin bada?

Jadanik kafesnea hoztu delakoan, zabalik dagoen egunkarian ezarri dut arreta. Ehundaka dira aurten ilegalki Euskal Herriko eritetxeetan

burutu diren abortoak, kasu hauetaz gain asko dira mugetatik at joan direnak, hainbat abantailek bultzatuta.


Egun, beronen legaltasuna erabakitzea dagoen beste arazoetariko bat da. Zein puntutaraino merezi du deskonformitate edo ziurtasun gabeko egoera honek?

Bapatean begiak malkoz bete zaizkit, baina ez da ez, arazo hauen irtenbidea nire eskuetan ez dagoelako, albotik datorkidan "kanutoak" zabaltzen duen usain eta ke

kondentsatuagatik baino. Arraioalhamaiak galdera sor ditzakeen beste gai bat dut begien aurrean. Familia artean konfusioa eta inkomunikazioa ekarri ditu ordea, guraso eta seme-alaben arteko muga zein punturaino heltzen den gehien indarzten duena. Egia da bai, adin bakoitzak bizitzeko era bat isladatuko duela, baina ez al da gogorra adinari pisu guztia leporatzea? Adina eta balore sozialak garrantzitsuak diren arren, hauek ez dute inolako baliorik izango, besteen gaizki esanak ardurarazten gaituzten bitartean. Ez al gara bada gizaki arrazionalak?



Soraluze sortzen



Azken bolada honetan gure herrian ehundaka etxebizitza edota apartamentu eraikitzeari ekin zaio, hamarkada baten zehar ezet eraiki ez den bitartean. Guzti honek herriaren bizitasuna eta ekonomiaren bultzada ekarri duelakoan, inmobiliaria eta eraikuntza sektoreko langileak gogor dihardute gure herrian dauden eraikin zaharrak beritzen eta erabili gabe dauden lur-sailen eraldatze prozesuan.

Bestalde, herri-ekimen honek gazteei Soraluze herrian bizi-toki

bat eskeintzen die, azken urteotan alboko herti edo hiritara ematen ari den emigrazio azkarra etentzearren edo. Honez gain, Soraluzek abantail konparagarri bat du alboko herriekiko, etxebizitzaren prezioa murriztagoa da eta.

Santa Ana kaleko etxe ilarak eraiki eta gero, etxe berrien eraikuntza Soraluzen eroti egin zen. Hamarkada baten zehar herriko kaleen estetikak ez zuen aurrera-pausu handirik eman, Kalebarren kaleko eta Santa Ana

kale hasierako eraikinen berritzeak salbu. 90eko hamarkada hasieran, nolabaiteko "bomn-a" emango da adreilu eta zementuzko ihardueran. Hasieran Santa Ana kalea aukeratu zen, Soraluzeko gune komertziala bihurtuz, non bertan oraindik ere hainbat etxebizitza salgai aurkitzen diren, etorkizunean euren prezioan beherakada eman daitekeelarik, amortizazio beharrei aurre eginez.

Jarraian Bategieta kalean etxe bat eraikiko da, nahiko aldendua zegoen auzo hau herri erdirantz zabaltzea posibilitatuko duelarik. Hiru atari egin dira; baina aipatzekoa da eraiki bezain laister ez zegoela etxebizitza berri bat eskuratzeko aukerarik. Ibai ertzerara dagoen altuerari esker, hainbat aparkaleku egin dira; oraindik ere badago aukerarik astmoa dutenentzat, prezioa 1,5 eta 2,5 milioi arteko mugan mugituz, tamaina eta edukien arabera.

Auzo honetan jarraituz, Arizaga enpresa berritzeari ekin diote, bertan etxebizitza eta aparkalekuak izango ditugu

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

#kutxa

fundazioa
fundación




Restaurante
TXURRUKA

Bº SAN IGNACIO - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

bizigarri.

Eraikuntzaren konposizioari dagokionez, 19 etxebizitza eraikiko dira; hauek lehen mailako material eta kalitatez osatuak izango dira. Eraikin zaharraz baliatzeak lau solairu ekarriko ditu, bi eratako pisuak tartekatuko direlarik, 85-97



metro karratu bitartean. Hauetariko zortzi bat, jadanik salduak daude.

Behelaldean 10 aparkaleku pribatu berri sortuko dira, aurrez aipaturiko aparkalekuak baino merkeagoak izanik. Inguruko lur-sailei begira; errepidean berrikuntzak gauzatuko dira; espaloi

berri batez hornituz eta abiadura murrizteko "semaforo" ipiniz. Guzti honekin helburua, Baltegieta kaleari autonomia propioa ematea da.

Etorkizunari begira berriz, hainbat egitasmo daude alde honetatik. Lehenbizi esan daiteke udalak Sacia

ingurukoa izan da; baina arkitektu edo aparejadoreek ez dute Soraluzengan sinisten, ondorioz larregitzat hartzen dute horrenbesteko inbertsioa burutzea, etorkizuna ziurgabetasunean barneratua baitago. Norako bidea edo zer bilakatuko da Soraluze?

erosi berri duela; bertan zona berdeak eta etxebizitzak eraikiko direnaren asmoa dago urte batzuk barru. Bestalde, azkenaldi honetan polemika sortu duen berrietako bat Errekalde kalean eraiki nahi diren etxebizitzak

JOSETXO Ardangela

PINTXO ETA OGIBITARTEKOEN
ESPEZIALITATEA

Atxuri, 9 SORALUZE Tlf: 75-15-71

OKINDEGIÀ - OPILDEGIÀ



FOTERO

San Francisco, 4 - ELGOIBAR • ☎ 74 07 35
Pabal, 15 - SORALUZE • ☎ 75 22 81
Bidebarrieta, 24 - EIBAR • ☎ 70 04 07

**BATZOKI
TABERNA**

Kalebarren 26 Tlf: 75-12-12

SORALUZE



Arpla C.B.
Ferretería - Bazar

Santa Ana, 22C
20590 SORALUZE

Tfnoa. 752522
Fax. 752522

SAN JUANETAKO TRADIZIÑUA PLAZENTZIAN GALTZEN DOIA?



Izena: Javi Balentzia
Adina: 43 urte
Langabezian

Ez dakit zer esan, baina uste dot baietz. Alde batetik galdu dogula nahiz ta osorik ez izan.

Txikitan gogoratzen dot auzo guztiek eitxen zebela sua eta gaur egunian hori galdu ein da.



Izena: Zigor Gallastegi
Adina: 22 urte
Ikaslea

Bai, konpletamente galtzen doia. Ia, ez dao lekurik pe ogerak eitxeko eta ezta jende gaztia mobitzen dana be. San Juanak

Eibarren izaten dia eta hara juaten naiz urtero. Udaletxiak ganorarik ez dakala pentsatzen dot.



Izena: Piedad Gonzalez
Adina: 43 urte
Etxeko andrea

Bueno, nik San Juan suak hemen ez ditut ezagutu baina uste dot bastante galdu dala.

Plazentzirako oso tristia iruditzen jata holako ohitura bat galtzia. Antzinako tradizioak berriro bueltatzia gustauko jatan.



Izena: Alazne Etxabe
Adina: 31 urte
Zerbitzaria

Tradizino guztiak doiaz galtzen eta geruo ta komoduaguak gara. Generalian jendiak

ohituretatik asko pasatzen dau. Oin artian egon dan gauzia ez dakagu zertan galdu urte gutxitan. Denon artian berrezkuratu bihar dou.



Izena: Iker Aldazabal
Adina: 20 urte
Ikaslea

Bai, galtzen doiaz San Juanak herrixan, ze bakarrik estazinuan eta Baltegieta eitxen

da. Nik uste dot tradizinuak mantendu ein bihar diala eta udaletxiak al daben moduan zeozer ipini bihar zeban.



Izena: Cristina Morales
Adina: 19 urte
Hostalaritza ikaslea

Azkenian saltsan sartu nauzue! Nik uste dot ohiturak ez diala guztiz galdu baina ez dia lehenguak. Pertsona nagusi bat

behar da sua zaintzeko eta ez dau inork kargu hori hartu nahi. Eta noski! gustatuko jatan aurten eitxia.



ITXAROPENA
TABERNA
SORALUZE

Etxaburueta, 4 - Telefonoa 75 23 30

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

ARRAIN FRESKO-FRESKUA!!

TFN: 75-24-40

SORALUZE

KIROLARIAREN TXOKOA

**ITSASO
MARTIN**
igerilaria




1. Esaldi bat. *Bai gora, bai behera, kirola aurrera.*
2. Soralezarrentzat mezu bat. *Kirol giroa gehitzea.*
3. Igeriketa ez den kirol bat. *Karatea.*
4. Amets bat. *Lan fijoak izatea kirol mailan.*
5. Animalia bat. *Mozoloa.*
6. Gizon batek behar du izan... *Azkarra.*
7. Lotsatzeko motibo bat. *Euskara mailan hanka sartzeak edukitzea.*
8. Soralezeko toki bat. *Karakate.*
9. Zer falta zaio Soraluzeri? *Igerilekua (kanpokoak).*
10. Eta zuri? *Atsedena lodi gehiago.*
11. Gustuko janari bat. *Arroza.*
12. Musika talde bat. *Oskorri.*
13. Telebistado programa bat. *Brikomania.*
14. Irakurri duzun azken liburua. *Setiembre.*
15. Edari bat. *Garagardoa.*
16. Bizitzeko Soraluze edo hiriburu bat? *Donostia.*
17. Oporretarako toki bat. *Jezteko bailara.*
18. Negar egin duzun azken aldian. *Ez dut gogoratzen.*
19. Munduarentzat nahi bat. *Pakea.*
20. Anekdotak bat. *Ikastaro batean nire semea uretara erori zen eta nire burua bota behar izan nuen bera ateratzeko.*

Ekintza fisikoak: adina, oztopo bat?

Badago nagusi talde bat Soralezeko polikirolegian ekintza fisikoak egiten dituenak. Goiko galderari erreferentzi eginez, hauentzako adinak ez du suposatzen inolako oztoporik kirola egiteko orduan. Talde honen funtzionamendua hobeto ezagutzeko Joxeanengana jo dugu, nagusiei ikastaroa ematen dien monitorearengana hain zuzen ere.

Orain dela zenbat urte hasi zinen gimnasia ematen?

Gimnasia ematen orain dela asko baina Soraluzen aurtengoarekin lagarrena.



Joxean monitoreak.

Zenbat urte ditu gazteenak, eta nagusienak?

Gazteenak 59 eta nagusienak 82.

Etxean hau zer den jakin gabe gelditzen diranak animatzeko arrazoi batzuk? Jende asko etortzen dela uste al duzu? Zenbat pertsonak osatzen dute taldea?

Jende nagusiaren gorputza ateetako zerrailak bezala, ez erabiltzean bere funtzionamendu egokia oztopatua ikusten da. Hau galerazteko ezinbestekoa da gorputzak aktibitate bat mantentzea. Bai, jende asko etortzen da baina gehiago etorri gero material aldetik arazoak edukiko genituzke. 35 izan arren, normalean 28 inguru etortzen dira.

Nabaritzen zaio betidanik kirola egin duenari?

Bai, asko nabaritzen zaio baina duela 20 urte bezala ez daudela ulertarazi behar zaie.


Onura fisikoaz gain, beraien psikologian ere nabaritzen al da eraginik?

Bai, asko nabaritzen da. Gainera horrelako talde batean aritzeak erlazio sozialak mantentzea suposatzen du eta hau beren psikologiarentzako oso onuragarria da.

Zer motatako ariketa eta kirolak praktikatzen dituzue?

Ba, danetik; aerobik, koordinazio ariketak, saskibaloia, eskubaloia, etab, baina gure neurrira egokituak.

Asko kexatzen al dira



Adineko pertsonen kirol taldea. **akoan?**

Lesio larririk izan al dute?

Ez, ez dira kexatzen eta ez dute inoiz lesio larririk eduki beroketa ariketa egokiak egiten ditugulako.

Hasi nahi duen bati, zenbat kostatuko litzaioke besteen erritmoa hartzea?

Kurtso hasieran hasiz gero, ezer ere ez baina erdi inguruan hasiz gero, agian hilabete bat edo bi.

Ekintza hauekin batera, zeintzuk dira kirolak onuragarriak nagusientzat? Igeriketa eta paseatzea.

Ekintza hauek egitera etortzen den jendeak elikadura asko zaintzen al du?

Errekonozimen-duak zenbatero egin ohi dituzte?

“Osasun arazoak” dituztenek bakarrik, adibidez, kolesterola, azukrea, etab. Normalean bi aldiz, haseran eta erdialdean, honetaz

bakoitzaren mediku-burua arduratzen delarik. Bestelako froga fisikoak nik egiten dizkiet (erresistentzia, koordinazioa,..)

Zein aholku emango zenioke osasun egokia izan nahi duen bati? Zoriontsu izatea.

Nola ematen dituzu klaseak, euskaraz ala erderaz? Zergaitik?


Normalean erderaz, denek ez baitute euskara ulertzen, baina bakarka hitzegitean, euskaraz badaki, euskaraz.

Anekdotarik.

Kalean elkar agurtzen ez zuten pertsonak elkarrekin afari eta bidaiak egiten amaitu dute.

PLAZENTZIAK BERE KORRIKA EDUKI ZUEN:

Azken momentuan esan ziguten Korrika ez zela Plazentziatik pasatuko. Nola? Zerbait egin behar dugu!!-pentsatu genuen. Ba esan eta egin: Plazentziak Korrika propioa edukiko du!! Honela ba, martxoaren 21ean, ostirala, Korrika Plazentziatik pasatu zen eta gero Maltzaraino joan zen bertan Eibarko herriak utzitako 1.5 km egitera. Eta badakizue? Primeran ibili ginen!!



GAZTETXEKO IKASTAROAK: Eibartik irakasle benetan ikasia ekarri eta martxan hasi zen urtarilean egurra lantzen ikasteko ikastaroa. Guztiz dohainik izan zen, bi hilabete iraun zituen eta hogeit bat pertsonak hartu zuten parte. Etenalditxo baten ondoren, beste bat hastea erabaki zen jendeak horrela nahiko zuelakoan eta bai, 18 apuntatu ziren baina eurretaniko bat ere ez zen herrikoa. Orain, gainera, perkusio ikastaro bat ere badago, Roki irakasle delarik. Beraz, badakizue, nahi izanez gero, Gaztetxean zuen zain daude. Animo!!

MAITE NARBAIZA (EA), UDALETXETIK


BOTA ZUTEN: Kanporaketa honen arrazoiak, maiatzaren 5ean burututako plenoan azaldu ziren, honakoak dira:

PNV (Aikate Jauna): "Maite Narbaiza, EA ko Zinegotziak, azaldu duena jarrerarengaitik izan da bafez ere, oposizio bezala jokatu baitu beti eta ez gobernu taldekide bezala."

PSOE (Aikaterode Jauna): "nik ez dut uste kargu-uzte hau dedikazio ezarengaitik izan denik, Gobernu Batzordekide izanik, azaldu duen jarrerarengaitik baizik".

EA ren erantzuna (Maite Narbaiza): "Nire kontzientzia lasai dago, nire dedikazioa berdina izan da guztientzat eta ez dut desberdintasunik egin". (...) "Nik uste partiduen sigla gainetik pertsonen lana baloratu behar dela eta herriari eman dion dedikazioa" (...) "Baikta ere ez dut ulertzen nola ez duzun Gobernu Batzordean sartu, Soralezeko 58 basaitik 56k firmatutako manifestua".





ERROMERIA HIRUKURUTZETAN:

Maiatzaren lehendabiziko igandean lehenagoko ohitura zaharrai jarraitu nahiez, erromeria alai bat ospatu zen


Hirukurutzetan. Orain urtebete ospatu zen lehen erromeria, aspaldiko partez. Jakina da orain dela urte askotxo udan erromeria haundi eta ederra ospatzen zela, lehenagoko haien besteko jendetza batu ez zen arren, ez zen jande gutxi joan eta giro goxo eta jator batean ospatu zen erromeria.

Goizean 9retan Gilako zubitik eman zitzaion Hirukurutzetara igotzeari hasiera, (esatekoa da makinatxo bat jendeke nahiago izan zuela autoan joatea), 11:15 aldean Meza eman zuen

apaizak pago-bedeinkatun, eta honen ostean ez zen txorizo, salda eta ardorik falta izan (eta guztia jan eta edanaz) Kapinixo elkarteko partaide batek ere momentu hau aprobetxatu zuen, mendia gainean 14 trikuharri garbitzeko egindako lanak azaltzeko ere, bide batez gure arbasoek egindako hilobi hauenganako errespetua eskatuz. Bazkalostean eta arratsaldean Hirukurutzetan trikititxia eta dantza izan zituzten nagusi, 5:30ak alderarte, ondoren bukatutzat eman zen erromeria. Azpimarratzekoa da ohitura zahar hau berreskuratzeko eta berriz ospatzeko hartu duten lana eta lan hau eskertzeko modurik egokiena bertara joatea dela ez legoke esan beharrik ere.

SAN ANDRESEKO ERMITAN KONPONKETA LANAK AURRERA DOAZ:

Gure San Andreseko ermita ederra berritzeko lanak hasiak dira dagoeneko. Auzoko "igeltseroek" igeltsaritza lanak burutu ondoren, Inaxio (Itsasoikua) arotzeri edo egur eraberritze lanetan burubelarri ari da. Baseliza San Andres jailetan meza emateko moduan egon dadin komeni da lanak denbora laburrean burutzea. Jaietarako bukatu ala ez, gogoz eskertuko ditu ermitak konponketa lan hauek. Bejondeizuela!!



ARRANO-TABERNA
SORALUZE



MARTXA eta BORROKA

Benito

Anaiak

Altzariak

Santa Ana 26

Tfnoa: 752047

SORALUZE

Klaudio Landa: "Amek seme bihurri bezala ikusten naute."

Euskal Herria hankaz gora jartzeko gauza den ironiaren erregearen bitxikeriak ezagutzeko aukera aparta dugu Soraluzetarrok. Beraren lotsa (???), proiektu eta sentipenak kontatzen dizkigu Pil Pilean-en azken ale honetan.

Euskal Herri osoa zoratzeko puntuan jartzen duen pertsonaia dugu Klaudio Landa. Horrela bada, irрати eta telebistan lan egiten duen showman honi buruz Soraluzetarrok gehiago jakin dezagun Bilboraino bideratu ginen Pil Pileaneko kazetariok, gure aurpegi ezagunei buruzko atal honetarako. Solasaldi oso atsegina izateko aukera eduki genuen berarekin:

Nola izan zen zure hasiera kazetaritza munduan? Ikasketen bidez?

Batez ere baneukan etxean erreferentzia. Nire anaiak klaseak ematen zituen Leihoan, kazetaritza fakultatean, euskal alorrean gainera, eta hark animatu ninduen. Gainera niri, komunikabideen arloa beti gustatu izan zait.

Zer izan nahi zenuen txikitan haundia zinenerako?

Txikitan, gogoratzen dut, amari esaten niola arkitektoa izateko karrera egin behar nuela. Geroago, marinela izatea nahi izan nuen. Azkenean konturatu nintzen umekeriak zirela eta kazetaritza egitea pentsatu nuen.

Badakigu Praim Taim-en oso lanpetuta ibiltzen zarela egunero, baina ba al daukazu beste proiekturen bat esku artean?

Proiektuak bai, gauzatu arte proiektu hutsak dira. Badago bat nik espero dudana...

(beranduago jakin ahal izan dugu datorren denboraldiko ETB1-erako izango den eguneroko umore telesailen paper bat izango duela) Mundillo honetan sartu baino lehen entzuten nuen: 'Suerte txarra dakar horretaz hitzegiteak', eta nik esaten nuen: 'a zer txorrada'. Baina, orain jada erabat eszeptiko bihurtu naiz eta nahiago dut oraingoz ezer ez komentatzea.

Irratia ala telebista?

Biak. Eta hoviez gain badaude beste komunikatzeko era batzuk ere. Esate baterako, bideo artista batzuekin harremana izateko aukera izan dut, eta hor ere badago niri asko interesatzen zaidan alor bat; bideokreazioarena eta... Antzerkiarena ere betidanik gustatu izan zaidan asunto bat izan da.

Inoiz pelikula serio edo dramatiko baterako eskaintza luzatuko balizute, onartuko al zenuke? Ikusten al duzu zeure burua zinean?

Egin, egin didate. Baina... oraindik uste dut... Dena dela, telebistan egin ditudan lanetan ere antzezle lana ere nagusi izan dela uste dut, bai Kale Gorria-n baita Goenkale-n izandako



zenbait kolaboraziotan ere. Filmeetarako izan nuen aukera bat eta egia esan beldurra ematen dit. Baina dena dela, espero dut aukera gehiago izatea.

Etxeoandreek berdin begiratzen al dizute etxeetan sartzen ibili zinen eta gero?

Berdin ez noski. Gertatzen dena da, nik Euskal Herriko amak asko maite ditudala, batez ere, Euskal Herriko amaren figura orokorrean, nire ama asko maite dudalako, jakina. Eta nahiz eta oso lotsagabea izan, lotsa aspaldi galdu nuen gauza bait da, amek

esaten dute; beitu, lotsagabe bat da, baina badauka bere puntu sinpatikoa, ez? Eta saiatzen naiz maitagarria izaten hoientzat. Badakit amek kalean ikusten nautenean seme bihurri bezala begiratzen didatela, ez? Baina hori gustatzen zait.


Jende askok aprezioa dizu, baina beste askok gorrotoa eta ezinikusia; zer dela eta uste duzu gertatzen dela kontrobersia hau?

Telebistak eragin handia dauka horretan, horrelako sentimenduak sortarazten dituelako. Eta garrantzitsuena, pertsonaiaren perfilagatik; pertsonaia bera epela ere ez delako, beroa da, beroegia batzuentzat. Ausarta den neurrian, horrek bere arriskuak ekartzen ditu. Eta gainera, orain arte euskal panoraman inoiz agertu ez den pertsonaia izan da; lotsagabea, ausarta, zirikatzailea... Dena den, kontrako eta aldeko iritziak enkajatzen ikasi egin behar da.

Zergatik ematen diezu neskei irratian telefonoz roilo gehiago mutilei baino?

Ez dut uste hor irizpide sexistarik dudunik. Ez diet neskei, emakumeei edo amei, gizonezko bati baino txanda edo roilo gehiago ematen. Niri jendearekin kontaktua izugarri gustatzen zait. Nik uste saltsa guztien perezil izateko edozeinekin moldatu behar zarela ondo.

Zein da inoiz esaten dizuten hitz edo esaldi mespretxugarriena?



dira nire fisikoan oinarritzen, tipo katxondoa naizela esaten didate.

Izango da ni piskat. jipi naizelako, baina normalean horrelako gauzak ahaztu egiten zaizkit. Horrek ez du esan nahi egon ez denik. Gutxitan, esan behar dut, eta hori egia da. Gutxitan jasan ditud jarrera txarrak. Batzuk egon dira eta eskubide osoa daukate nire jokuan ez sartzeko. Hitz konkreturik ez dut gogoratzen.

Eta piropo politena?

Batez ere begien inguruko gauzak esaten dizkidate. Ileari buruz ez didate piroporik botatzen, oso gutxi bait daukat. Normalean, gainera, piropoak ez

Noiz pasatu duzu lotsarik haundiena, inoiz lotsatu baldin bazara?

Lotsarena urtez urte galdu dudan zerbait da. Lehen gogoratzen dut noizbait gorritu nintzela. Baina orain ezin dut gogoratu noiz gorritu nintzen azkenengo aldiz. Generalean, nigatik lotsa sentitu baino, lotsa ajenoa sentitzen dut.

Zer aldatu da zure bizitzan ospea edo fama heldu aurretik eta gero?

Aldatzen da, eta tontakeria bat izango litzateke ez dela aldatu ezer esatea. Ez dakit

**MARISA
ILEAPAINDEGIA**

Tfnoa. 752243

Rabal kalea 19-1 • SORALUZE



*Erretegi
Jatetxea*

ESOZIA

Bº Esozia, s/n. - Tel. 751001 - SORALUZE

jendeak zer uste duen, baina oraindik ere, eta honek asko pozten nau, jendea oso era normalean hurbiltzen da nigana, nik ematen dudan irudiagatik izango da seguraski. Eta horri esker, gauzak ez dira gehiegi aldatu, piskatxo bat bakarrik zentzu horretan.

Gaitza al da juerga bat botatzea zuretzat, hau da, ezaguna izateagatik? Txapa ematen al dizu jendeak? Edo oster, gehiago ligatzen al da?

Ni nahiko parrandazalea naiz, asko gustatzen zait. Parrandak egiten jarraitzen dut. Gauza aldatzen da, jendeak ezagutzen zaituelako. Txapa inoiz ez didate ematen, niri gustatzen bait zait jendearekin harreman zuzena izatea.

Irla desertu batera eramango zenituzkeen 3 gauza?

Oso galdera orijinala da. ***(Barre algarak)*** Ba... irratia, telebista eta liburu bat.

Eta telefonoa?

Jada dagoeneko pixkat nazkatu egin naiz telefonoari lotuta egoteaz. Eta gainera, gauza materialez aparte, nire

akonpainantea, laguna edo bikotea ere eramango nuke.

Oporretarako, Euskal Herria edo atzerria?



Euskal Herria asko maite dut eta gainera aukera asko ematen dituen Herria da; berez handia eta ezberdina delako. Baina egia esan, azken bolada honetan kanpora jotzen dut.

Eta bizitzeko, Ea edo Bilbo?

Galdera zaila... Jo... ***(Harrapatu dugu!)*** Begira, biekin daukat oso harreman berezia. Bilborekin daukat amodio eta gorrotoaren arteko

harremana, zeren Bilbo gogorra izan daiteke bizitzeko, baina zoratzeko (zentzu onean) moduko hiria ere suerta daiteke. Ea, hemendik gutxira dago eta bertara salto batean joan naiteke nere amari bisita bat egitera, edo aspaldiko lagunak ikustera. Gaur egun Bilbon bizi naiz, eta kontentu nago, eta momentuz ez nuke aldatuko.

Esan duzun azken gezurra?

Elkarrizketa honetan ez dut gezurrik esan. Je, je, je. Hori argi utzi nahi dut... Eta, azken gezurra... Niri gezurrak esatea asko gustatzen zait, txantxak egitea eta holan. Gaur goizean esan dut azkena, oporretarako planak egiteko pertsona batzuekin bildu behar nintzen eta eskakeatu egin naiz "por el morro"; zeren baneukan beste plan bat, eta "B" plan hori atseginagoa zen, barnean afaria sartzen zelako besterik beste. Elkarrizketa hau neukala esanez eskakeatu naiz, je, je, je...

Agur berezi bat luzatuko al zenioke Soraluzeko herriari?

Jakina. Praim Taim, Kale Gorrian, Hau da Marka eta Arralde saioei esker eta nere lanari esker Soraluzeko jendea ezagutzeko aukera izan dut eta horretaz aparte ezagutzen nituen "pieza" batzuk batez ere. Eta "pieza" hoientzat eta Soraluzeko herri guztiarentzat; 'Aupa zeuok eta ia egunen baten zuen herrira joateko aukerarik daukadan. Aupa Soraluze!'

Iturgintza ITUR

Iturgintza, gas eta kalefakzio instalazioak

Santa Ana 20

Tlf: 751241

SORALUZE

GILA TABERNA

OSO GIRO ONA!!!

SORALUZE

DEABRUAK TEILATUETAN **SORALUZEN**

Azken bolada honetan komunikabideetan oso entzunak diren "Deabruak Teilatueta" musika taldearekin solasaldi bat izateko aukera izan genuen Maiatzaren 18an, Gaztelupe

tabernan emango zuten kontzertuaz baliatuz. Talde hau Tolosako lau mutil gaztek osatzen dute: Haritz, Jon Ander, Imanol, eta Iñigok hain zuzen ere.

Pil-Pilean: Azalduko diguzue taldearen sorrera nola eman zen?

Imanol: Ikastolan gela berdinean genbiltzan, musika gustatzen zitzaigun eta ensaiatzen hasi ginen eta gustoko genuenez zuzenean jotzeari ekin genion. Haritz, abeslaria da, Jon Ander-ek baxua jotzen du, Iñigok bateria eta nik kitarra.

P-P: Musikaz gain beste ekintzarik burutzen al duzue?

Imanol: Beno, ikasi eta lana

egiten dugu ja, ja.. Lana egin txapa batzuekin, dultzainero batzuekin... Ez, ez Haritz biologia ikasketak egiten ari da, Iñigo turismo eta nik eta Jon Ander-ek kazetaritza ikasketak ditugu, "Entzun" aldizkaria ere ari naiz lanean. Iñigo eta Jon Anderrek ere Andoni Tolosaren (Morau) diskoan partehartzen dute.

P-P: Musikari dagokionez, berriz, ikasketarik baduzue, ezta?

Imanol: Iñigok

bakarrik, gu ez gara musikariak... Nire aitak esaten du solfeoa ez dugula ikasi eta orduan ez garela musikariak. Iñigok solfeo ikasi zuen txikitari eta orain bateria ikasten ari da. Guk, musika entzuten dugu, gutxi gorabehera autodidaktak gara.

P-P: Zein musika estilotan sartuko zenukete zuen iharduera?

Iñigo: Nik ez nuke jakingo zein estilotan sailkatu. Joseba Martinez-ek lehengoan esaten

Etxabe harategia

Euskal txahalkia - Bildotsa

Merkatu plaza, 6-7 postuak - SORALUZE
Tfnoa: 752375

Herriko Taberna

San Juanetan ere, martxa eta borroka!

Txirio Kale 1

EIBAR

Tfnoa: 200923

zuen gu ginela "la nueva generaciòn del Rebell-Rock Vasco". Baina nik esan nion hori berak inbentatutako etiketa bat zela. Etiketak jartzea ez zait hoberena iruditzen. Uste dut gainera eragin asko ditugula eta oso zaila dela estilo batean sartzea.

P-P:

Eragin hitza aipatu

duzenez, zein taldek izan du eragina zuengan?

Iñigo: Euskal musikan badaude talde batzuk beharbada gugan eragina izan dutenak, ba "M"-ak, "Negu Gorriak", "Bap"... Ez dakit, beste askok. Jon Ander: "Morau". Morauren diskoa

atera zenean nik abesti guztiak buruz ikasi nituen, ja, ja...

P-P: Bestalde, zein publikotatara zuzentzen zarete gehienbat, aurretik



mugatutako zerbait al da?

Imanol: Ba ez dakit; ez daukagu aurreiritzirik Guk egiten dugu egiten duguna eta gustatzen zaiguna irtetzen da. Baina ez daukagu norengana joan behar garen ezarrita. Bilatzen

duguna gu gustora gelditzea da; eta guregana hurbiltzen dena, ba primeran. Ez dago publiko fijo bat.

P-P: Lehenago ere Soraluzen izanak

zarete, ezta? Zelako esperientzia izan zen?

Imanol: Beno bai, "Bide Hertzean" taldearekin; Jon Ander Iñigo eta Andoni Tolosa (Morau) izan

ginen. Gaztelupe tabernan jo genuen eta baita polikiroldegian ere, gainera lagunak etorri ziren eta gustora sentitu ginen, oso kontentu.

P-P: Kontzertuak egiteko orduan zer duzue gustokoago; plaza batean jotea,



aras S.A.L.

TORNILLERIA DECOLETADA
PIEZAS EN ACEROS Y METALES
TORNILLERIA S/ NORMAS DIN
TORNILLOS DE ALTA PRECISION

Polígono Industrial, 20-21
Apartado 50

Tfnos. (943) 75 17 36 - 75 18 03
Fax (943) 75 22 95
20590 PLACENCIA-SORALUZE

OSASUNA TABERNA

Bokatak, pintxo bereziak,
plater konbinatuak
eta kazuelatxoak

Gabolatz 10

Tlf : 75-18-36

SORALUZE

Gaztetxeetan,
tabernan...

Imanol: Nahiago
ditugu leku
txikiagoak; gure
ingurune naturala
da. Kontzertuak
naturalagoak dira;
publikoa hurbilago
duzu.

P-P: Abestiak
direla eta zein da
hauek sortzeko
erabiltzen duzen
formula?

Imanol: Normalean
kitarrarekin doinu
bat ateratzen dugu,
gero doinua sartzen
diogu eta ondoren
letra sartzen da.

P-P: Oso erraza
dirudi horrek,
baina zeintzu gai
bilatzen dituzue?
Politikoak,
amoranteenak...

Imanol: Gure
inguruak eragiten
diguna; ez bakarrik
egoera politikoak,
sozialak ere.
Orokorrean bizi
duguna, ez dakit:
zein egoeratan
gauden gazteok...
Ideologikoki zer
pentsatzen dugun...

P-P: Euskal Herria
ingurutzat hartuz,
nola ikusten duzue
panorama musikala?

Imanol: Bai, ondo
ikusten dugu,
Euskal Herria oso
txikia da; baina
asko saltzen da;
jendeak esaten
duena baino
gehiago. Eta gero
musika aldetik
barietate haundia
dago. Estilo
gehienak lantzen
dira; bada Euskal
kultura bat.

P-P: "Euskadi
Gazteko"
zerrendetan lehenak
izanak zarete.
Lehen postuaren
bila al zoazte?
Arrakasta zaleak al
zarete?

Imanol: Ez,
zerrendan gaude
baina ez dut
jarraitzen; baina
garrantzia dauka,
eh. Beno, guretzako
poztekoa da;
primeran...
zerrenda bat da eta
guri interesatzen
zaiguna jotea da
eta gustora egotea.
Ez dakit; jendearen
errekonozimendua
gustatzen zaigu,

eta hau pista bat
da ez, hor ikusten
da jendeak segitzen
gaituela eta hau
poztekoa da ez...

P-P: Udara begira
ze asmo du zuen
agendak?

Imanol: Ba bueno,
jairik-jai joko
dugu; hemendik
gertu dagoen
Osintxuko jaietan.

P-P: Amaitzeko
zerbait gehitu nahi
izango bazenute.

Imanol: Ba asko
estimaten dugula
Gaztelupeko
kontzeru eta giroa,
eta ondo pasatzen
eta pasarazten
saiatuko garela.
Gaztelupe tabernari
eskerrak eman nahi
genizkioke.

P-P: Beno, gaur
musikari bezala
hurbildu zarete,
agian oraindik
kazetari bezala
aurkeztuko zarete
aldizkari honetan..

Imanol: Ja, ja...beste
posibilitatetariko bat
izan daiteke

Kontulan Aholkularitza, S.L.

Asesoría Empresarial

Santa Ana, 13 - 1. Ezk.
Tel. (943) 75 17 82

20590 SORAKUZEE
(Gipuzkoa)



ITSASTAR
Arraindegia

Santa Ana kalea, 13
Denda 752149
Etxea 75 16 27

Ezoziko agerpenarena

Orain urte asko-badira mila bat urte- Ama Birjina Irigoien baserriko ugazabari agertu zitzaion bere lurretan eliza bat eraiki zezan eskatuz.

Gizona paraje polita bilatzen saiatu zen eta uste izan zuen ez zegoela Arritxa baserriko zelaia bezain ederrik, hain garbia eta laua berau.

Honela ba, inguruko baserrikoei kontatu zien gertatutakoa eta denak bat Arritxako zelaian hasi ziren lanean.

Baina egunez eraikitzen zutena, gaez botata aurkitzen zuten eta gainera harri eta egur guztiak Ezozin agertzen ziren.

Goizero-goizero harriak Arritxako zelaira igotzen zituzten berriz eta lanean hasten ziren, baina beti gauza berdina gertatzen zen: harriak behean agertzen ziren.

Azkenean, kokoteraino eginda, Irigoieneko baserritarrak gauean zaindari bezala geldituko zela erabaki zuen.

Eta han zegoela, zera ikusi zuen: Ama Birjina, zilarrezko jantziak, harriak Ezozira eramaten bi behien laguntzaz eta behiei honela esanez:

“Aida, txuri eta hori
ateraiozu begia
begira ari den horri”



Ondorioz, Irigoieneko ugazabak begia galdu zuen eta ordutik hona hamaika bat belaunaldik begian gaitzen bat jasan izan du.

N. de Gantxegik 1920an kontatua, “Antología de fábulas y leyendas del País Vasco”
Luis de Barandiaran Irizar

Itzulpena: Ubane

ARMENDIA JATETXEA

sukaldaritza tradizionala

Bataioak, jaunartzeak...
ERA GUZTIETAKO OSPAKIZUNAK

Ezozia Auzoa 11 Tfnua: 75 10 02
SORALUZE

ARTICULOS
DE
FERRETERIA

MENAJE

COPIA DE
LLAVES

IBAI-ONDO

AGUSTIN OSA ORMAETXEA

KALEBARREN, 14
TLF: 751199

SORALUZE

PLAZENTZIAKO BERBAK ETA ESAMOLDEAK

BERBAK

Bidetxior: bideska, zidorra.

adb: hobe dou bidetxiorra hartzia, iluna gañean dakau ta.

Demandan: eztabaida, ezadostasuna, liskarra.

adb: horrek andra gizonok beti demandan dihardue.

Emendau: itzali.

adb: argitasun honekin eztao lo eitxerik, emendaizu argixa segiduan!

ESAMOLDEAK

Beranduko gaztaña: beti berandu heltzen denari esaten zaio, "martin berandu"

adb: hemen dator gure beranduko gaztaña, hurrenguan ez dotsau itxoingo horrenbeste denbora.

Barriren barri: zerbait berriro hasieratik hastia.

adb: oiñ arte eindakua apurtu eta barriren barri hasiko gaitxun.

BOLIA TABERNA

Tlf: 75-11-04
SORALUZE

ETXEBARRI®

*Cargadores automáticos de barras
Rosadoras de tuercas
Ranuradoras
Máquinas especiales*

ETXEHUN, S.A.L.

*Estación, 7 - Apdo, 62
Teléfono (943) 75 18 91
Fax 75 18 91*

20590 SORALUZE - PLACENCIA
(Guipúzcoa)

*Tantaka taldeak "El Florido Pensil" obra taularatuko du ekainaren 28an. Antzelsana 23:00etan izango da Arane polikiroldegian. Antolatzailea: Soralu zeko udala.

*Sorluzeko mendi taldeak bi irteera antolatu ditu ekainaren 29rako eta uztailaren 5-6rako; lehena mendi trabesia bat da, Larraitz-Urrein eta Guarala. Hau esan bezala, ekainaren 29an izango da.

Bigarren txangoa, berriz Pirineotara izango da. Azken hau uztailaren 5-6 bitartean antolatu dute.

* Uztailaren 4an Bingoa izango dugu Itxaropena zaharren egoitzan.

* Sorluzeko Eguzkik, mendi taldearekin batera, beste bi ibilaldi antolatu ditu:

Uztailaren 4an ikastolako haurrak Tolosako Zuloaga Txiki Ingurugiro Eskolara joango dira. Bertan, ekintza, ezberdinak egingo dituzte egun osoan; lehendabizi, goizeko 10:00etan, hurrek Tolosako Gortotxategi museoa ikusteko aukera izango dute 11:30ak arte eta, gainera, nahi izanez gero, fitxa bat bete dezakete. Ondoren, museotik Zuloaga Txiki Eskolara abiatuko dira. Eguardiko 12:00etan iritsiko dira bertara eta, heldu bezain pronto, ukendua egin, erleei buruzko bitxikeriak azaldu eta enlauntzak zuzenean behatzeko aukera izango dute hurrek.

13:30ean bazkaldu egingo dute eta arratsaldeko 15:30etatik 17:30era bitartean tailerrak egongo dira. Bertan, gauza ezberdinak egingo dituzte; polboroiak, alanbika bat, poligono ezberdinekin abaraskak eraiki eta kandelak, besteak beste.

Uztailaren 6an, berriz, ikastolako haurrak Sorluzeko mendietara joango dira. Irteera goizeko 8:30ean izango da plaza berrian. Bertan, hurrek inguruko zuhaitzetan txoriendako jantoki bat eta 20 kabi inguru jartiko dituzte. Hau egin ondoren, eta ibilaldiari amaiera emateko, haut guztientzat hamarretakoa egongo da.

*Gaztelupe tabernak kontzertu bat antolatu du uztailaren 6rako. Bertan, "Vinny Reed Blues Band" talde frantsesa arituko da. Beraz, "Mimenblusa" gustoko duzenok Gaztelupe tabernan aukera ezin hobea duzue.

* Ezoziko Ama Abesbatzak bi kontzertu eskeiniko ditu uztailean. Hilaren 12an Oriora joango dira. Kontzertua arratsaldeko 20:00etan izango da Orioko San Nicolas parrokian. Bigarrena, berriz Sorluzen izango da herriko jaietan lehen egunean hain zuzen ere. Kontzertu hau gaueko hamarretan izango da Santa Maria La Real elizan.

* Itxaropena zaharren egoitzak bazkari bat antolatuko du uztailak 24an nahi duen guztiarentzat, jubilatua izan edo ez. Apuntatzeko Itxaropena tabernara

jo. Bazkaria 14:00etan izango da. Musika Larreategi anaien esku izango da.

*Sorluzeko Amnistiaren aldeko komiteak jaietako gitarrak potoloa antolatu dute:

Uztailaren 24an txupinazoaren orduan errepresialiatuen senideei omenaldia egingo diete.

Uztailaren 26an preso eta errefuxatuen eguna ospatuko dute. Bertan, bazkari popularra izango da eta, era berean txistulariek giroa alaituko dute.

Horrez gain, aipatzekoa da jai guztietan plaza zaharrean txosna jartiko dutela amnistiaren komitekoek.

*Kontrargi argazki kolektiboak, kultura eta euskara udal batzordearen laguntzarekin, Santa Ana X. argazki lehiaketa antolatu du. Argazkilaritza gustoko duen edonork parte har dezake. Argazkiak zuri-beltzean edo koloreetan aurkeztu daitezke eta gehienezko neurria 30x40 zentimetro izango da. Gaiak Sorluzeko herriarekin zerikusia izan behar du. Lanak aurkezteko azken eguna 1997ko Irailaren 23an amaituko da eta udaletxera, kontrargiren egoitzara edota Juanma argazki dendara eramán ditzakezu. Saritutako argazkiak Kontrargi argazki kolektiboaren esku geratuko dira.

ETA ONDO PASA UDAKO
OPOR EGUNAKI

ZUAZAra bidaia

Goizeko 9:00rak dira eta denok autobusean gaude. Autobusa martxan jarri da, abiatu gara. 10:15 dira, Zuazarantz joateko barkoaren zain gaude, heldu da. Beste aldera iritsitakoan, bakoitza bere kanpamendura joan da. Dena ondo jarri eta buelta bat ematera joan gara bazkalordurarte. Bazkalondoren bainujantziak jantzi eta ur ekintzak egitera joan gara, hauek dira egin ditugun ekintzak: arrauna, windsurf-a, optimis-a eta pedaloiak. Ur ekintzen ondoren kanpamendura joan eta ekosistemari buruzko lan bat egin

eta afaltzera joan gara 20:30etan. Afariaren ondoren 17 pertsona irlan zehar buelta bat ematera joan gara eta gero ohera, baina ez lotara, zeren eta 2ak arte ez baikara ixildu eta zigor bezala kanpora irten behar izan dugu 10 minutuz eta goizeko 7:30etan irlari buelta bat eman behar izan diogu korrika. Kanpamendura heldu garenerako denok nekatuta geunden eta aldatu eta gosalduek ondoren Zuazatik irten gara, Gasteizera joateko. Gasteizera heldu garenean animalia disekatuen museo bat ikusi dugu, baina ez zaigu bat

ere gustatu zeren eta animalia mordo bat zegoen hilda eta gu horren kontra gaude eta horregaitik protestatzen dugu. Museotik irten ondoren, Mendizorrotzan bazkaldu, beste museo bat ikusi eta Soralezera etorri gara denok lotan oso nekatuta geundelako, baina aldi berean, oso pozik, ondo pasatu dugulako.



Nerea



Mendia

Gizane Mendia

Aintzane Exposito



SORALUZeko **aek** EUSKALTEGIA

EUSKERA IKASTAROAK

EKAINAREN 27tik UZTAILAREN 24rarte
Hemen daukazu EUSKERA non ikasi!!!

Maisuen etxea - Tlf.: 75-14-34 - SORALUZE

Sukaldaritza atal berri honi ekiteko, Aitziber neska gazte sukaldariarekin izan genuen solasaldi adeitsu bat.

Aitziber Aldazabal, 19 urte, sukaldaria

Non ikasi duzu?

Elgoibarren, bost bat hilebetetan zihar eta gero Ezozin praktikak ein nitxuan eta oin bertan nabil lanian.

Zein da zure espezialitatea?

Reposterixia, politxena da itxeko baitxa jateko bebai.

Zeintzuk dira zure helburuak?

Oingoiz sukaldaritzari buruz aldan eta gehixen ikasi. Oingoiz ondo nao Ezozin, ez daukat prisarik nere negosixua sortzeko, diru asko bihar da horretarako.



PETIT CHOIX (txutxuak)

Osagaiak:

- Ura 1 / 4 l
- Mantekilia 125gr
- Hirina 125gr
- 4 arraultza

nahastuz. Labera sartzen dan plakan mantekilia emon eta mangiak pelota batzuk ein. Laba 150-175.

Ura jartzen da ontzi batean gatz piskabatekin eta mantekila guztiakin, su bajuan jarrita. Mantekilia urtzen danian, sua altutu eta irakiten dauanian hirina golpian bota eta nahastau. Ertzetan ez danian pegatzen, beste ontzi batera bota (sutatik aparte). Bota arraultzak banan banan ondo

ON EGIN!!

JAIOTAKOAK

- * Marta Otero Torrecillas
- * Maialen Oregi Ziorraga

HILDAKOAK

- * Flora Oregi Madariaga
- * Ramon Lagoma Labari
- * Marcelino Barrutia Usabiaga
- * Celestina Gallastegi Gallastegi
- * Emiliano Gil Arana
- * Francisca Gordejuela Irazu
- * Felix Heriz Lejardi
- * Jose M^a Gamazo Pinilla
- * Juana Leturiondo Alcorta
- * Encarna Bereicua Basauri
- * Teresa Peralta Santiago
- * Jose M^a Agirre Agirrebeña

AURREKO ALEKO

(5. zenbakia)

LEHIAKETAREN

IRABAZLEA:

Amagoia Ostolaza

IZAN DA.



Hemen ikus dezakegu Amagoia poz-pozik bere saria (CD bat) eskuetan duela.

Hauek izan dira ale honetan bere laguntza ere eskaini dut

- * **Maria Jesus Gozotegia**
- * **Klip papaerdenda**
- * **Optika Lacuesta**
- * **Artedi Marrazki Eskola**
- * **Juanma Argazki Denda**
- * **Arkupe Arropa Denda**
- * **Santa Ana Kirolak**
- * **Mertxe Drogerixia**
- * **Begoña Txurruka Urdaitegia**

PAGOBEDEINKATUKO MELKIADES AZTIAREN HOROSKOPOA

ARIES:

Osasuna: Aspaldiko arazoak direla eta ez zara tripetatik oso txukun ibiliko, zaindu ezazu urdaila gutxiago edanez eta gauza garbiak jenez.

Maitasuna: Haserretzeko joera hori ere! Zazpikia zara gero! Infusio batzuk oso onak dira lasaitzeko, ea horrekin baretzen zaren!

Dirua: Hartzeko pronto eta emateko tonto! Zuk eman eta nik hartu hori ez da pekatu...

TAURUS:

Osasuna: Memoria arazoetan jausi nahi ez baduzu atentzio ugari behar, ez dut uste "amnesia" izatera helduko zarenik halere.

Maitasuna: Ez duzula gogoratu berarekin zenuen zita?! Eta nor den gogoan al duzu? Arreta gehiago!!!

Dirua: "Ez da asko irabazten duena aberatsena, bai osteratu gutxi behar duena" (aberats batek esana).

GEMINI:

Osasuna: Uda parte honetarako azal arazoak ez izateko kontuz ibili eguzkitan! Beltzaran jarri nahi baduzu goizetan eta arratsetan hartu.

Maitasuna: Ederra zaude benetan! Zer gehiago behar duzu bada? Txapela buruan...

Dirua: Lan egin beharko duzu udan zehar, txanponik ere ez duzu eta. Irailetik aurrera aldatuko zaizu zoria.

CANCER:

Osasuna: Estresak jota ibiliko zara uda hasieran baina jairik jai joanez Tapiaren atzetik animoa altxatuko duzu.

Maitasuna: Zuk nahi duzun hori ez da batere egokia zuretzat. Oiloek txita egin arte soltero jarraitu.

Dirua: Ditzosozko dirua...! Inoiz oportetan ganoraz ezin joatea ere! Sorpresatxo bat izango duzu baina!!

LEO:

Osasuna: Zuk ere lasaitasuna behar duzu, ez beraz parrandarik, bidai estresaturik... Atsedena helburu izanda kultur bidaia edota bainuetxea.

Maitasuna: Ez bazaude batere gustora bere ondoan alde egin, beldurrik gabe!... baina orain maitia lehen baino lehen aska gaitzen.

Dirua: Aurreratu duzun dirutza horri etekina atera, ez izan horren esku-itxia eta xahutu ezazu, dena den lehentasunei ere begiratu.

VIRGO:

Osasuna: Hobetuko zaizu egoera orokorra eta epeltasunarekin batera guztiz bizkortuko zara.

Maitasuna: A zelako erabakiak hartuko dituzun sasoi honetan, aldaketa izugarriak, baina hoberako hauek ere! "Bihotzak agindu, tristurak arindu"!

Dirua: Hiru gauzak batera ezin denez izan honako honetan dagokizu oraingoan makal eta txiro ibiltzea, baina gaitzerdi!

LIBRA:

Osasuna: Orokorrean ondo zabilta baina ikusmenean arazotxo batzuk konpondu behar (ez baduzu ulertu ondorengoarekin argituko duzu).

Maitasuna: Hain erakargarria, ederra, polita... da! Honela ikusten baduzu, miopia arazoak dituzulako da. "Itsu-itsuan maitatzea, maitalearentzat kaltea"

Dirua: Pesetak, liberak, euroak... dena delakoa jarrita ere ez duzu arazo handirik izango, hain kantitate urria izanik berehala moldatuko zara eta.

SCORPIUS:

Osasuna: Aspaldian edan txarrekoa zara eta ez dago zure ondoan egoterik. Zaindu arazo bihurtu aurretik.

Maitasuna: Paseo berri eta dotore horretan pasean dabilen horri hainbeste begiratu ondoren, erreka usaina atxeki zaizu.

ALAITZ TABERNA

EZOZI ETORBIDEA
TFNOA. 75 11 90
SORALUZE

INDUSTRIAS FER S.A.

Industrialdea, 17
20590 Soraluze

Dirua: Begira eta begira buelta eta jira, tabernetan sartuz gero sosak gastatzen dira, lagunak gonbidatuko zaitu eta tira!

SAGITARIUS:

Osasuna: Zure aposturako joera horri freno jarri behar diozu, zer da hau, hainbeste porra, kiniela eta demonio!!

Maitasuna: Orain Giroaz maitemindu, ondoren Tourra, ba al duzu ba astirik beste inorentzat!

Dirua: Xahutu duzun guzti hori gorde izan bazenu, zoratu ezer ere ez, baina oportetarako beste izango zenuke. "Urruneko heltzia urrez, etxeratu orduko lurrez".

CAPRICORNIUS:

Osasuna: Ez bazaude zure gorputzarekin konforme kirolari

ekin, gainera zirkulazio arazo horiek ere arinduko zaizkizu.

Maitasuna: "Sardina bat lan, sardina bat jan". Ez baduzu zeuretik ematen zer espero duzu jasotzea? Zabaldu bihotza!!!

Dirua: Gutxi zenuela eta izateko asmoz zenuena jokatu! "Burua saldu eta txapela erosi"

ACUARIUS:

Osasuna: "Kakalarritasun mental" horri aurre egiteko "kontrol" ikastaroetara apuntatu, ea zer nahi duzun argitzea lortzen duzun.


Maitasuna: Ez zara oso urruti helduko garai honetan, eta ez itsuan inorengana jo, badakizu "oilo ibiltari azerien janari".
Dirua: Premia duzenez gero, dirua lortzeko lan egin behar. Hori beti

egin duzula? eta nik eta hark, denok egiten dugu!!!

PISCIS:

Osasuna: Sano-sano zabilta arlo guztietan eta horrek osasun fisikoari ere freskotasuna ematen dio.

Maitasuna: Handitzen zarenean, ikusiko duzu, ixilik egoteak zenbat balio duen... Entzun gehiagotan eta ahoa zabaltzerakoan kontu eduki, batzutan min ematen duzu.
Dirua: Zu bai ederk! soldata jaso, loteria tokatu, eskupekoak ere ugari... Ez dela ametsa ez, disfrutatu! Dagoenean bonbon eta ez dagoenean... EZ EMON!



EZKER ESKUIN: 1- Igarobideak. 2- Arratsa. 3- Zenbaki jakin bat lortzeko kantitate positibo bat zenbatez gehitu behar den adierazten duen berretzailea. 4- Bihurri. Zelaiak. 5- Eta, errepikatuz eta haur hizkeran okela. Neka. 6- Gibela. Erbioaren sinbolo kimikoa. Berrogeitamar. 7- Lehenengo pertsona. Nazioa. 8- Bat. Inuxentea. Tona. 9- Euskal sindikatu abertzalea. Ikas eta Ari. Egile atzizkia. 10- Erizainek osatzen duten multzoa.

GOITIK BEHERA: 1- Pilotak egiten dituen pertsona. 2- Alokairuan utzi. Ez eme. 3- Narrazti mota. Azkena. Bide. 4- Artean. Kontsonantea. 5- Ostatu. Garbitzeko gaia. 6- Leku batetik bestera oinez joan. Zuhaitz mota. 7- Eguna. Bizkaieraz, eramán. 8- Ermuakoa. Kontsonantea. 9- Sasoiak. Bat. Gsuero egin ohi dugu. 10- Errepikatuz, gorotza. Harribitxien pisu unitatea.

Hau da duda-muda!!!



**SORALUZECO ZEIN KALETAN DAGO
HONAKO ETXE HAU????**

KALEAREN IZENA.....

Laga alperkerixia ta idatzi segiduan "CD" eder bat irabazteko aukera izango dozu ta. Bidali zuen erantzunak 27 postakutxatilara lehenbailehen. (Kontuz, postakutxatila berria dugu eta!)

HEMEN JOAN DAITEKE

ZURE PUBLIZITATEA

**ZUEN PUBLIZITATE ESKARIAK ONDOKO
HELBIDERA BIDALI, FABOREZ :**

**27 POSTA KUTXATILA
20590 SORALUZE**

IGARTUA



bizikletak

**BIZIKLETA GUSTATZEN
BAZAIZU:**

BICIPRECISION IGARTUA - F. MOSER

500 m/2. ALMAZEN eta DENDA BERRIA.

*BIZIKLETAK: KARRETERAKUAK, MTB, UMEENTZAT, ESTATIKOAK, TRIAL,
TANDEM eta ZIKLO-KROSSerakoak.*

Era guztietako ERROPAK, OINETAKO edo ZAPATILAK.

Era guztietako KONPONKETA eta ARREGLOAK.

BIZIKLETAK GARBITU eta ENGRASE ZERBITZUA.

Telef. 761121; Fax 760675; Telef. Mobila 989-761121
Kalea: Zubieta 5-7. BERGARA


**DANTZA TALDEKOEN OHARRA:
MUTILEN DANTZA TALDEA OSATZEKO 3
PARTAIDEREN BILA GABILTZA.**

INFORMAZIO GEHIAGORAKO, Kontaktuak:

**ION BERISTAIN
EGOITZ UNAMUNO
LOIOLA MADERA**

Euskeriakin

Busti zaitez gustora!



polik hori
de gozoa maite zaibut
laztana

